

MIKROIPUINAK

[EUS] Euskaraz plazaratzen ditudan lehen mikroipuinak EL CORREO egunkarian ageri dira asteburu honetan. Ez dira azkenak izango.

[ES] Este fin de semana han aparecido en el periódico EL CORREO los primeros microrrelatos que publico en euskera. No serán los últimos.

<https://www.elcorreo.com/zurekin/ehun-euro-txipitxapa-20191006185347-nt.html>

Zurekin

Mikroipuinak

'Ehun euro', 'Txipitxapa!' eta 'Mila kilometro': bost minututan irakurtzeko hiru istorio



«Ez zen bere ohea; ez zen bere logela». / E. C.



1 | Ehun euro

Non zekien jakin gabe esnatu zen Ainhoa. Hori ez zen bere ohea; ez zen bere logela; ez zen berak ezagutzen zuen tokiren bat ezta. Bakarrik zegoen, hori bai.

Saiatu zen burua bere tokian jartzen, baina ez zuen gauean egindako ezertaz oroitzen. Damutzen hasi zen. Bere lagunek edateko joera zeukaten eta berak ez zuen gutxiago izan nahi. Vodka eta tekila ez ziren errudun bakarrik. «Afaldu, denbora galdu» erabiltzen zuten beti leloz. Gixajoa. Eskuak aurpegian jarri eta lasaitzen saiatu zen. Ezin lortu.

Orduan, altxatzerakoan, berrogeita hamar euroko bi billete topatu zituen mahai gainean. Telefono bat zeukaten idatzita. Ondoan, azpiko arropa.

2 | Txitxipapa!

<<Txitxipapa! Afaltzera!>> Horrela deitzen zigun amak, eta berriz deitzerik ez zuen behar. Ziztu bizian, eseri eta jan. Goseak hori dauka, gezurra badirudi ere, ez duela denbora alferrik galtzen.

Aspaldian ohi bezala, mahaiaren inguruan hazitako umeak gara gu. Zintzoak askotan eta biziak beti. Alperrak, gutxitan.

Agian, hori dela eta, eltzea balitz bezala ulertzen dugu bizitza. Ez dugu, ez, asko behar pozik bizitzeko. Ogi puxka eta haragia. Hori bai bizipoza!

Orain, gure seme-alabak dira tradizioa jarraitzen dutenak. Ondo hazitako umeak direla edo ez jakiteko, mahai inguruan esertzea besterik ez da behar. «Amoña! Txitxipapa!» entzuterik baduzu, orduan, gu ere pozik biziko gara.

3 | Mila kilometro

Ez zekien zergatik, baina egun horretan ez zen gai sentitzen erlazio horrekin jarraitzeko. Oraindik berataz maiteminduta zegoela ziur zen, baina harremana gozatu beharrean, mina baino ez zion sentiarazten. Mina eta tristura. Mina, bera gabe ere ondo pasatzen bazekielako. Tristura, elkarrengandik hurbilago sentitzeko aukera bakarra mugikorraren pantaila zegoelako tarte. Eta hori ez zen nahiko, ez, Ander bezala maitasunaz ito daitekeen gazte batentzako. Gaixoa.

Orduan, telefonoak dar-dar egin eta Claudiaren mezua iritsi. Azkeneko hitza ikustearekin nahiko izan zuen. Inoiz ez bezala, euskaraz zegoen idatzita. Lau letra baino ez ziren; lau letra besterik ez. Baina bihotzak ez zituen irakurri nahi; buruak, ordea, bai.

Ipuin hauek eta beste asko sainzdemurieta.com web orrian topa ditzakezu.